Defendemos EUSKADI Zaindu

EAJ PNV

Maribel Vaqueroren hitzaldia
Sukarrieta, 2026.11.22

Eguerdi on, jelkide, lagunok!

Ekitaldi honek eta leku honek jelkideen borondate geldiezina irudikatzen dute. Euskadi aurrera ateratzeko, atzo eta gaur dugun borondatea. Beti Aurrera! Badira mapako puntu bat baino gehiago diren lekuak. Gure historiaren zati bat gordetzen dutenak eta gure norabidea seinalatzen dutenak. Sukarrieta horietako bat da. Batzuek pentsa dezakete iraganari begira dagoen lekua dela. Baina ez! Alderantziz da!

Hemen hil zen Sabino Arana Goiri, 1903ko azaroaren 25ean. Hemen gogoratzen dugu Euzko Alderdi Jeltzalearen sortzailea. Euskal nazio-kontzientzia proiektu politiko antolatu bat bihurtu zuen belaunaldi hura. Euskadi euskaldunen, euzkotarren aberria dela aldarrikatu zuena. 123 urte igaro dira. Mundua aldatu da. Euskadi aldatu da. Gure gizartea aldatu da. Baina gure proiektua bizirik dirau!

Galdera batek indarrean jarraitzen du: nola bermatu Euskadik bere nortasuna gordetzea eta bere etorkizuna demokratikoki erabakitzea? Nola? Sukarrietak zer garen eta nondik gatozen gogoratzen digu, baina, batez ere, etorkizunean Euskadi eraiki, eta Euskal Etxea babesten jarraitu behar dugula gogoratzen digu. Eta hori jeltzaleok egin dugu, gure historian zehar, urte hauetan. Eta etorkizunean ere horrela egingo dugula hitza ematen dugu.

Zer da herri batekin hartutako konpromisoa? Zer da? Ez da haren historia gogoratzea bakarrik. Guk Euskadiren etorkizuna ere eraiki nahi dugu!! Orain arte egin dugun bezala! Leku honek emozioa eta arrazoia sinbolizatzen ditu. Sentimendua eta burua!! Gorputza eta arima. Etorkizunari begiratzeko eta Euskadi nolakoa izatea nahi dugun irudikatzeko lekua. Gure seme-alabei utzi nahi diegun Herria pentsatzeko lekua. Gure biharko Euskadi orainean eraikitzen delako!

Hoy quiero hablaros de nosotros y nosotras. Llevamos ya media campaña y podría decir muchas cosas sobre otros. Sobre el escaso lugar que veo que ocupa Euskadi en sus proyectos, Sobre lo poco que defienden las necesidades de Euskadi. Lo habéis visto también. Cero.

Y ya sabemos cuáles son las recetas de PP y VOX. Por eso repetimos alto y claro: con Vox no, nada, nunca. Con Vox no, nada, nunca. Si miramos al PSOE y su relación con Euskadi. ¿Qué ocurre con este partido cuando se le quita el envoltorio electoral? Primero, en Madrid posponen, regatean, o escatiman nuestro autogobierno. Segundo, ponen trabas a nuestra capacidad de decidir nuestro futuro. Y tercero, si tienen que elegir entre Euskadi o España, eligen España. Y sus diputados vascos también. El PNV elige Euskadi. Siempre Euskadi. Aquí y en Madrid, elegimos Euskadi.

Defendemos EUSKADI Zaindu

eaj pnv

Y qué decir de ese partido que vive de las apariencias. Los hechos son tozudos. Ondean la bandera del diálogo y en Euskadi votan a todo no. En Madrid sí a todo y en Euskadi no a todo. Ondean la bandera de la paz, pero son incapaces de decir que matar estuvo mal, no encuentran la palabra condena. Una pena. Quizás piensen que el diccionario es también un "estorbo". Ondean la bandera de la vivienda y sus ayuntamientos están a la cola en construir vivienda protegida. Antes de ayer, Idoia contaba las viviendas de protección oficial construidas en los ayuntamientos bizkainos de Bildu con una mano, ¿cuántas eran? 1,2,3,¿4? Ondean todas las banderas, pero detrás, ni proyecto ni modelo. Ni Euskadi.

O contadme, ¿qué decisiones y acuerdos buenos para Euskadi ha contribuido a sacar adelante en las últimas décadas? Ninguno. Ezer ez. Gu beti etxerako, haiek beti etxekalte!!

Esan dizuedan bezala, gaur geure buruaz, gutaz hitz egin nahi dizuet. Hau da horretarako leku aproposa. Zintzo hitz egingo dugu. Badakit badagoela politikarekin etsita dagoen jendea. Konfiantza izan duen jendea, eta orain, hauteskunde hauetan, zalantzak dituena. Etxebizitza eskuratzeko zailtasunen aurrean, laneko segurtasunik eza sentitzen dutenak edo erantzun azkarragoak espero dituztenak. Kezka guzti horiek entzutea eta erantzutea merezi du. Eta horretan ari gara. Konfiantza ez baita oinordetzan jasotzen. Ez da eskatzen. Konfiantza merezi egin behar da, eta irabazi. Esaten denaren eta egiten denaren arteko koherentziaz. Konpromiso zehatzekin eta ebaluatu daitezkeen emaitzekin. Egitateekin.

Nosotras sí rendimos cuentas. Lo he hecho en Gasteiz, Irun, Laudio, Eibar, en todos los encuentros que he tenido. He explicado que las cosas no han caído del cielo en Madrid. Qué hemos tenido que poner todo nuestro empeño y más.

Y a los que preguntan qué hemos conseguido, les hago una lista de algunos de los logros:

- Revalorización de las pensiones. Objetivo cumplido.
- Más recursos económicos y más derechos para cuidar de nuestros mayores y familiares dependientes. Objetivo cumplido
- Evitar el cierre de empresas como Talgo. Objetivo cumplido
- Garantizar el arraigo de empresas y proyectos en nuestro país, como Ayesa, o BM. Objetivo cumplido.
- Mayor potencia eléctrica para nuestra industria. Objetivo cumplido
- Nueva ley para atajar la multirreincidencia y garantizar la seguridad en nuestras calles. Objetivo cumplido
- Defender el euskera contra viento y marea. Objetivo cumplido
- Vía para el reconocimiento de Euskadi como nación. Objetivo cumplido.

Y sabéis qué os digo. Sin el PNV todo esto no se hace. Sin el PNV no se hace.

Defendemos EUSKADI Zaindu

EAJ PNV

Datorren Igandean zer egin erabaki ez duzuenoi zuzentzen natzaizue. Zalantzak dituzuenoi. Politikak huts egin dizuela sentitzen duzunei. Euzko Alderdi Jeltzalearengan konfiantza izatea eskatzen dizuet. Zergatik? Lehenik eta behin, zuen zalantzen arrazoiak ulertzen ditugulako. Badira konpondu gabeko arazoak. Hobeto har zitezkeen erabakiak. Denboran luzatu diren irtenbideak. Aitortzen dugu. Eta horiei erantzuteko ardura hartzen dugu. Baina horretarako, Madrilen ahots sendoa izan behar dugu. Indartsuagoak izateko eta emandako hitza bete dadila eskatzeko. Euskal Talde indartsu bat.

Bigarrenik, EAJ-PNVren ibilbideagatik. Ez diogu herri honi huts egin unerik zailenetan. Aurpegia eman dugu. Hirugarrenik, Euskadirentzat orainaldiko eta etorkizuneko proiektu bat dugulako. EAJ-PNVri emandako botoa boto segurua delako! Euskadik ez du itsu-itsuko konfiantzarik behar. EAJ-PNVrekiko konfiantza bai! baina exijentea. EAJrengan konfidantza bai, gure ibilbideagatik eta Euskadirekin etorkizunean hartzen dugun konpromisoagatik.

Boto bakoitzak erabakitzen du zer Euskadi nahi dugun. Zer Herri eraikiko dugun. Zer ahots izan nahi dugun Madrilen. Erabaki hau gurea da. Inorena ez. Bozkatu konfiantzaz. Bozkatu segurtasunez. Bozkatu Euskadi. Bozkatu EAJ-PNV.

Gora Euskadi askatuta!